


BERRIGARA

3. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, otsailak 16



Aratuzteak 96

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa 7/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46

BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa)

EL KONTZESIONARIO OFIZIAK HOBIAK

BERGARAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

• IPINTZA ETA MIGEL ALTUNA INSTITUTUAK •

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN 1. ZIKLOAREN EZARPENA
(AURTENGO OHO-KO 6. ETA 7. MAILAKO IKASLEENTZAT)

Honek
suposatuko
du Hezkuntza
Erreformaren...

FASE BERRIA

Derrigorrezkoa.
Ikasleen
gaitasuna landuko
duena.

Elgeta, Antzuola eta
Bergarako Eskola
Publikoen ekarpenez
burututako...

PROIEKTU BERRIA


Integrala. Euskalduna.
Bateratua. Anitza.
Doanekoa. Gurasoen
partaidetza.

Ikastetxe berria. Proiektu
berri honek behar dituen
baldintza guztiak
betetzen dituen...

ESKOLA BERRIA

Ipintza ondoan
dagoena
(Migel Altuna berria)
☎ 76 20 82

HAUXE DA MOMENTURIK EGOKIENA GUGANA ETORTZEKO!!



*ETOR ZAITEZTE gure ikastetxera MATRIKULATZERA
OTSAILAREN 20ra arte*

RROTALDE JAUREGIA
3570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

rgitaratzailea:
 RDUN Elkarteak.
 asterreka, 13 Bergara.
 noa eta Faxa: 76 08 19

izendaria:
 eko Azkarate
redakzioa:
 uardo Mendibil
 kel Elkoroberebar
 ne Larrañaga

aketazioa:
 eko Azkarate
blizitatea:
 ex Azkarate
irpidetzak:
 rka Elortza
stuen zuzenketak:
 epan Plazaola
 ripi Laskurain
 x Labaien

redakzio kontseilua:
 rka Elortza
 guel Angel Elkoroberebar
 x Labaien
mikiak:
 or Rodríguez
 rka Ortega & Jon Alvarez
 x Ugalde
 ai Azkarate
naketa:
 ntangorri taldea

ada:
 00 ale.
rimategia:
 uo Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
pyright:
 RRIGARA
je gordailua:
 50/91
N:
 0-6599

RRIGARAK ez du bere gain
 zen aldizkarian adierazitako
 nen eta iritzien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako
dalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
uzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du




Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzaren Kultura
ailaren laguntza jaso du

JERARDO ELORTZA

UNEDeko EKDKo irakasle ohia

- Zein da UNEDeko Euskal Kultur Departamentuaren gaur egungo egoera?

- EKD kendu dute eta ez dago berriz martxan jartzeko aukerarik, horixe izan zen erabaki ofiziala. EKDKo lau irakasleok despido karta jaso dugu dagoeneko baina azken erabakiaren zai gaude. Bestalde, kurtsoa hasi eta ondorengo erabakia izan zenez, emergentziako konponbide bat aurkitu behar izan da matrikulatutako ikasleentzat. 100 ikaslelik gora zeuden eta EGAKo 3 talde eta Sakontze mailako beste bat osatu ziren. Klaseak lehengo kolaboratzaileek ematen dituzte, larunbat goizetan Miguel Altuna Institutuan.



- Eta titulua lortzeko aukera izango dute ikasleek?

- Erabakia kurtsoa hasita zegoela hartu zenez, ez zegoen garbi kontu hori. Hezkuntza Sailaren jarrera ez dakigu zein izango den baina baliteke EGAKo ikasleak deialdi libreetara aurkeztu behar izatea.

"EKDKo ikasleentzat emergentziako konponbide bat aurkitu zen"

I T U R R I O N E T I K

XXII. Gorrako txirrindulari igoera martxoaren 10ean jokatu da

Gorrako XXII. Txirrindulari igoera jokatu da datorren martxoaren 10ean. Ohikoa denez, proba horrek afizionatuen denboraldiari hasiera emango dio.

Begarako Txirrindulari Elkarteak afizionatuen mailako txirrindularirik onenak ekartzea espero du.

Horrez gain, afizionatuen probaren aurretik, beteranoen lasterketa jokatu da Gorrako aldapetan. Afizionatuen kategorian Santi Blancok dauka igoerako errekorra, 20 minutu eta 33 segunduko markarekin.

Aurreko edizioan Claus Moller danimarkarra (lehen irabazle atzeritarra) eta Jose Fernández (beteranoetan) izan ziren irabazleak.

E S A N D U T E

"Astakeria badirudi ere, gauza bat esango dut: Plan Industrial bera baino garrantzitsuagoa da interlokutore sozialen jarrera"

JAVIER RETEGI
 Industria Sailburua
 HERRI IRRATIA

"Plantilari onena eduki nahi izan dugu beti. Aranzabalen kontuan ez dago ezer. Behar ekonomikoengatik ez dut jokalaria bat ere salduko. Bakarrik lehen taldea indartu beharreko kasuan"

LUIS URANGA
 Realeko presidentea
 EGIN

"Goñiren debutaren aurrean, azkenean jarri dioten konpromezua baino gutxiagoko debut baten aldekoa naiz. Begira zer gerta zitzaion Belokiri Retegirekin binakako txapelketa jokatu zuenean. Lagundu behar izan zitzaion hurrengo hilabeetetan"

AITOR ELKORO
 Pelotaria
 EL DIARIO VASCO



GOLDENEYE

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



LA FRONTERA

Osteguna: 20.00.



Zinea

▼▼ 007 agente ospetsuaren abentura berriak. Honako honetan **Pierce Brosnan** aktore ezagunak (*Remington Steel*) landu du protagonistaren papera, aurreko guztietan bezala aktorea ederrak alboan dituela, kasu honetan **Izabella Scorupco** eta **Famke Janssen**. *Bond* agentea alde batetik bestera ibiliko da, egoera arriskutsuenak gainditzeko era guztietako inbento sinestezinak erabiliz.

▼▼ **Adolfo Aristarain** (*Un lugar en el mundo*) zinegile argentinararen azken filmea. 1900 urtean bi haur jaio dira Galizia eta Portugal artean, **Joao** portugaldarra (**Achero Mañas**) eta **Xan** galiziarra (**Pere Ponce**). Handik urte batzuetara beren bizitzek topo egingo dute... **Federico Luppi** eta **Aitana Sánchez-Gijón**ekin.

▼▼ **Komite Internazionalistak** eta **Mugen Gaietik** Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatutako Erakundeak, arrazismo, esklabutza eta migrazioari buruzko erakusketa ikusgai dago egunotan Kultur Etxean, aste barruan 6etatik 8etara eta astebukaeran 12etatik ordu bietara eta 6etatik 8etara. Era berean hitzaldi eta proiektioak iragarri dira.

Deiak

▼ **Pedro Luis Ormazabal**en argazkiak Elgoibarko Kultur Etxean, otsailaren 29ra arte.

▼ **Hitzaldia**. Begoña Lasagabaster Eusko Alkartasuneko Kongresurako Gipuzkoako hautagaiaren hitzaldia ostegunean, hilak 22, 7etan Alkartetxean.

▼ **Hitzaldia**. Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeriako kideak Europako migrazio eta arrazismoari buruzko hitzaldia emango du ostegunean, hilak 22, 19.30etan Kultur Etxean.

▼ **Mendi irteera**. Pol-Polek 14 urtetik gorakoentzat antolatutako mendi irteera Balerdira otsailaren 25ean. Izen-ematea Pol-Polen.

Ogia

▼ **Igandea 18**: Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 16**: Mozos/Amezua.
- ▼ **Larunbata 17**: Camacho/Ruiz.
- ▼ **Igandea 18**: Camacho/Morales.
- ▼ **Astelehena 19**: Puy/Azkoaga.
- ▼ **Asteartea 20**: Guallar/Español.
- ▼ **Asteazkena 21**: Estella/Corcue..
- ▼ **Osteguna 22**: Mozos/Irizar.

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzailleak
Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...
Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Siaska
Dena zure
haurrarentzako
San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

Telebistako pailazoak

Txirri, Mirri eta Txiribiton igandean frontoian



Haur, gazte, zein helduek telebistako pailazoekin primeran pasatzeko aukera izango dute domekan.

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo ezagunak igandean 6etan Bergarako Frontoian izango dira. Jose Inazio Ansoarena "Mirri" k ikuskizunaren berri eman digu.

- Nolako ikuskizuna eskeiniko duzue igandean?

- Bi atal nagusi izango ditu. Lehendabizikoan ilargira doazelakoan "Tortolika II" izeneko kohetea egingo dute, baina ilar-gira joan beharrean Bergarara helduko dira eta kostako zaie benetan non dauden ohartzea. Tartean kantak, sketschak, jolasak edota dantzak eskeiniko ditugu eta hurrek espektakuloan parte hartuko dute.

Bigarren atala, berriz, abentura modukoa izango da eta gaiztotxo bat izango da tartean, Xaguzarroski izeneko, Txirri, Mirri eta Txiribiton aur-

ka jarriko dena. Xaguzarroski gaintzeko ikusleentzako ezinbestekoa izango da. Amaieran, gure azken diskoko abestiak eskeniko ditugu.

- Hurrei bakarrik zuzenduta al dago jaialdia?

- Nagusiei ere zuzenduta dago. Pailazoak ez dira haurrentzat bakarrik. Edade bakoitzean modu desberdinean gozatzen da. Zazpi urtera bitarteko haurrak zur eta lur geratzen dira koloreen magia-ekin, hortik gorakoak gaiztoaren kontrako abentura horretan murgiltzen dira eta nagusiek, abentura eskema ezaguna izan arren, ondo pasatzen dute. Denentzat entretenigarria eta osasungarria.

- Hurrek zerekin egiten dute barre?

- Batez ere, zaplasteko, erorketa eta erantzun azkarrekin.

- Pailazoak ez al dira modaz pasatzen...

- Pailazoak berriztuz doaz janzkera, musika eta beste hainbat gauzatan eta azken batean antzerkia edota musika moduko generoak direnez, hor izango dira beti. Xabier Otaegik eta biok 24 urte daramatzagu elkarrekin eta gure artean komentatzen dugu barru-barrutik benetako pailazoak sentitzen garela. Eta bizitzan ere gero eta pailazoago garela esango nuke. Guk oso argi daukagu eta pailazo izatea aldarrikatzen dugu.

"Bizitzan gero eta pailazoago gara"

ARATUZTEAK 96

LARUNBATA, 17

16.30: Haur jolasak San Martin plazan Xipizarok antolatuak.

19.00: Buruhaundi eta erraldoien kalejira Udal Txistulari Bandak animatua.

19.30: Xamatx dantza taldearen kalejira eta Luzaideko dantzen agerpena.

23.30: Dantzaldia Erreka taldearekin San Martin plazan.

IGANDEA, 18

12.30: Aratuzteetako kontzertua, Udal Musika Bandak eskainia Novedades aretoan. Egitaraua: Pepita Greus (Pasodoblea, Pérez), El tambor de ganaderos (Obertura, Chapi), Ballet parisien (Suite, Offenbach), Ihauteeriko dantzak (herrikoia) eta Big Band signatures (Higgins).

18.00: Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoaren ikuskizuna Udal Pilotalekuan.

19.00: Lotxo taldearekin erromeria San Martin plazan.

ASTEARTEA, 20

16.00: Musika Eskolako txarangarekin kalejira.

17.00: Panta-Rhei antzerki taldearen, "Anbotoko Dama" ikuskizuna, San Martin plazan.

19.00: Dantzaldia, Izadi taldearekin, San Martin plazan.

20.30: Sardinen entierroa, San Martin plazan.

23.00: Dantzaldia Izadi taldearekin, Aratuzte jaiei amaiera emateko.

Bergarako ehungintza

Bergararrei "mahonero" izena eman zigun industrigintza ez da berria. Aurreko mendean hamar-hamalau urteko neska mutikoak enplegatzen zituen, geroxe-ago Bergarako neska gazte askoren iharduna eta emanzipazio bide bihurtu zen, eta ondoren makina bat etorkinen kokaleku ere bai. Hala ere, tradizionalki, eskulan merkea erabili izan duen bigarren mailako industrigintza kontsideratu da inguruko kontestuan.

70eko hamarkadan hamabi bat ehungintza lantegi baziren Bergaran, txiki eta haundi. Ordurako ehungintzako langileak beren nortasunaren jabe baziren. 1978. urtean Tavesako greba historikoa gertatu zen; handik aurrera "negoziatio" hitzak zentzua hartu zuen.

Errekonbertsio sakona jasan eta gero hiru enpresa nagusi mantendu dira: Algodonera, Narvaiza eta Tavesa. Gaur egun 500 familiaren ogibidea hemen dago. Bergara batean hau asko da. 1988. urtetik aurrera Algodoneraren hazkuntza zela eta, gertakizunek abiadura bizkorra hartu dute. Lehendabizi Valentziara hedatzen da, eta jarraian Marokora. Zaldu jaunak -puntuan zuzendaritzatik dimittitua- taldearen zabalkundeak Bergarako enpresak finkatuko zituela agindu zuen. Baina heldu da eguna taldearen barre-

netik konpetentzia sortu dena.

Ondoren enpresaren jabeagoa hiru eskutatik pasa da: lehendabizi Marokoko judu finantzari bat obligazio konbertibleen bidez jabetu zen; haren obligazioei aurre egiteko zuzendariek Manuel Reini (Pulevako aferragatik ezaguna dena) esku eman zioten, akziodun nagusi bihurtzen zelarik; baina dirudienez, honen jokoa ez zen garbia, finantza munduan inabilitatu eta baztertua geratu zen eta azkenik, Westdeutsche banku alemaniarrek bere partea kendu zion zoren orde.

Zer dugu orain, Algodonerak 150. urteurrena betetzen duenean? Bergaran inbertitu nahi ez duen ugazaba bat eta Administrazio Kontseiluari aurpegia ematen ausartzen ez diren bitarteko ugari.

XABIER LARRAÑAGA (ELA SINDIKATUKOA)

Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



◆ **Emakume bat motor istripuan hil**

Bergaran bizi zen Mari Carmen Nin López 35 urteko emakumea ostiralean hil zen, ostegun arratsaldean Urteaga kalean izandako istripuan jasandako zaurien ondorioz. F.H.M. arrasatearrak gidatzen zuen Honda CBR motorrak Mari Carmen Nin harrapatu zuen. Motor gidariak buruan kolpe larria jasan zuen eta Arrasateko eritexera eraman zuen Gurutze Gorriak. Mari Carmen Ninek bi seme-alaba zituen eta bere aldeko hileta elizkizunak igandean izan ziren San Pedron. Hildako emakumearen familiakoek istripua ikusi zuten herritarrei dei egiten diete berekin harremanetan jartzeko. Familiakoekin kolaboratzeko interesa dutenek 72 50 76 telefonora dei dezakete, Agustina Nin-gatik galdetuz.



Bailarako unibertsitarien %32,9ak arlo teknikoko ikasketak aukeratzen ditu.

Ertainetako ikasle gehienek euskaraz ikasten dute Bergaran

Hezibide elkarteak 1995/96 ikasturteko Deba Garaiko estatistika eskolarrak jakitera eman ditu. Haur hezkuntzan (3-6 urte) esate baterako, 1.437 ikasle dira Deba Garaian eta 406 Bergaran (guztiak D ereduan). Lehen hezkuntzan (OHOk 6. mailara arte), berriz, 3.742 ikasle dira Deba Garaian eta %67,1ak D eredu aukeratu badu ere, Bergaran %80,5era iristen da kopuru hori. Bergarako kasuan, 847 ikasle dira, 682 D ereduan, 163 B ereduan eta 2 A ereduan. D ereduaren gorakada nabaria da aurreko urteekin konparatuz. 7. eta 8.

mailan (273 ikasle) antzeko kopuruak ematen dira. Bestalde, Aspacen 14 eta Arans-Gi ikastetxean 31 ikasle daude.

Ikasketa ertainei dagokienez, Bergaran 1.291 ikasle dira: 101 Aranzadi ikastolan, 152 ikasle Mariaren Lagundian, 473 Ipintza institutuan eta 565 Migel Altuna institutuan. 1994/95 ikasturtean 1.345 ikasle zeuden Bergaran eta 1986/87an 1.249 ikasle. Azkenik, bailarako eskola unibertsitariak kontutan hartuz, 1.722 ikasle daude (kopuru gorakada) eta Bergarako UNEDen, berriz, 1.611 ikasle Hezibideko datuen

arabera. Horietatik 1.439 ikasle unibertsitateko ikasketak egiten ari dira eta 172 dira 25 urtetik gorakoak unibertsitate sartzeko egin beharreko ikastaroan ari direnak; azken honetan 86/87 ikasturtearekin konparatuz %40a jeitsi da kopuru.

Bailarako gazteek unibertsitateko ikasketak aukeratzeko, %32,9ak arlo teknikoko ikasketak aukeratzen ditu, %23,8ak giza zientzien arloa, %15,7ak administrazio eta gestio arloa, %6,6ak natur zientziak, %5,8ak osasun zientzia, %2,7ak hizkuntza arloa, %1,2ak artea eta %11,3ak bestelakoak.

HILDAKOAK

Bernardino Garitano Berraondo

Otsailak 8, 91 urte

Mari Carmen Nin López

Otsailak 9, 35 urte

JAIOTAKOAK

Andoni Gallastegi Agirre

Otsailak 7

Ane Izagirre Díaz

Otsailak 8

Zure konfidantzako denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

◆ Karnabalak

Jubilatueta

Datorren asteartean, otsailak 20, Karnabalak ospatuko dira Jubilatuen Egoitzan. Bazkaria iragarri da Jubilatuetan eta ondoren dantzaldia izango da. Izen-ematea Jubilatuetan, 76 21 40 telefonoan. Mozorroturik joaten diren guztiei txanpan kopa bana emango zaie.

◆ Jubilatuentzako

egonaldiak Torreveijan


Diputazioak antolatutako "Tarteko" programaren barruan, martxoaren 1etik 30era Torreveijan jubilatuentzako egonaldiak izango dira. Bete beharreko baldintzak, 65 urte izatea, pentsionista izatea eta norberaren kabuz moldatzea. Izen-ematea eta argibideak 76 21 40 telefonoan.

◆ Mariaren Lagundiko zozketa

Mariaren Lagundiko ikasleen zozketan 496 zenbakia izan da saritua. Boletoaren jabeak Azpeitxi jatetxean bi lagunentzat 15.000 pezetako afaria irabazi du.

◆ Deux Alpesera irteera Pol-Polekin

Pol-Polek Aste Santuan, apirilaren 5etik 13ra, Deux Alpesera joateko irteera antolatu du. Bazkideek 47.200 pezeta eta gainontzekoek 48.000 ordaindu beharko dituzte (fiantza: 5.000 pta.). Prezioan bidaiaria (autobus literan), 6 eguneko forfaitak eta apartamentua sartzen da. Segurua (1.800 pezeta) aukeran eskeinitako da. Izen-ematea Pol-Polen.



Dokumentuak estanteria mugikorretan gordeko dira Udaletxeko sotanoan.

Udal Agiritegia zabalik dago Udaletxe ondoko lokalean

Orain arte Errekalde jauregian izan da

Aurreko astean Udal Agiritegia-ren trasladuari ekin zion Valladolideko Mudanzas Gallego enpresak. Udal Agiritegia zabaldua, Udaletxean eskeintzen diren zerbitzu guztiak osatuko dira.

Artxiboan Udaletxeko, Unión Cerrajerako, Kultur Ekintzako eta Seminarioko artxiboak eta parrokiako mikrofilmak aurkitu ahal izango dira. Agiriek 400 metro lineal hartuko dituzte eta orain tenperatura eta hezetasun egokienean gordeko dira Udaletxeko sotanoan.

Dokumentuak estanteria mugikorretan gordeko dira eta segurtasun neurri guztiak betetzen direla adierazi zigun Arantzazu Oregi Artxiboko arduradunak. Goiko plantan, berriz, publikoarentzako gelak

izango dira, sarrera San Martin plazaatik bertatik izango delarik (San Pedrorainoko eskilaren ondoan hain zuzen). Bertan, kontsulta gela, taldeetan lan egiteko area edota liburutegia erabili ahal izango dituzte interesatuek.

Orain arte dokumentazio guztia Errekalde Jauregian egon da gorde-ta. Arantzazu Oregik esan digunez kontsulta dexente egiten dira urtean. Orain erreztasun gehiago izango dira ikerlariarentzat, agiriak errezagó lokalizatu ahal izateko ordenadoreak jarriko baitira.

Artxiboa zabalik izango da astelehenetik ostiralera, 9etatik 13.30etara eta 14.30etatik 17.00etara eta edozein herritarrek erabili ahal izango du.

BERGARA

Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

IGARZA

MERZERIA
LENZERIA

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

SUBIJATI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

Bergarako bost preso gose grebaren bigarren txandan

Ibabe eta Etxaniz omenduko dituzte datorren astean

Asteartean euskal presoek egiten diharduten gose grebaren bigarren txandari hasiera eman zitzaion Estatuko hainbat kartzelatan. Presoen dispersioari amaiera emateko eta presoak Euskal Herrira ekartzeko antolatu dira gose greba txanda hauek. Bigarren txanda honetan gose greban diren presoan artean, Jose Ramon Aiastui, Iñaki Arenaza eta Iñaki Arietaleaniz (Alcalá Meco-ko espetxean preso daudenak), Jabi Lazkano (Alcazar de San Juanen) eta Mikel Askasibar (Herrera de la Manchan) bergararrak eta Patxi Olabarria antzuolarra daude. Aurretik, Haritz Egidazu, Iñaki Ibabe, Mikel Osa eta Pedro Zumelaga bergararrak izan dira gose greban. Gose greba txanda bakoitzak 15 egun

iraungo du.

Gestorek, bestalde, 16 urtez preso dauden Iñaki Ibabe eta Jose Mari Etxanizen omenezko ekitaldiak antolatu dituzte datorren asterako. Datorren ostegunean, hilak 22, Pepe Rei Egineko kazetariak hitzaldia emango du arratsaldeko 8etan UNEDeko aretoan. Pepe Reik hainbat liburu idatzi ditu eta horrez gain oso ezaguna da egiten dituen kazetaritza ikerketengatik.

Ostiralean, berriz, Etxaniz eta Ibaberen omenezko jaialdia izango da gaueko 10 t'erdietan Frontoian. Bertan, Leire, Monika eta Ane abeslariak eta Bittor Aiape kantari gaztea izango dira eta presoan senideek ere omenaldia jasoko dute. Sarrerak 400 pezetan salduko dira.

◆ HBren oharra

Martxoaren 3an botoa korreoz eman nahi dutenei zuzendutako bulegoa ireki du Bergarako Herri Batasunak Arrano zaharrean. Interesatuak bertara jo dezakete, astelehenetik ostiralera, 11etatik ordubatera eta 5etatik 19.30etara.

◆ Zuhaitz eguna

Larunbatean, hilak 17, Zuhaitz eguna izango da. Bertan 10-11 urteko ikasleek hartuko dute parte eta San Martzial inguruan, eguerdian, hainbat zuhaitz mota landatuko dituzte. Ondoren ogitartekoak eta edariak banatuko dira. Irteera goizeko 11etan egingo da Pesatik.

◆ Gauzak argitu nahian

Aranzadi Ikastolak argitu nahi izan duenez, Seminarioan Lokatzak eta hainbat musika taldek erabiltzen duten lokaleko tejabana ez zen haizearen eraginez jausi, Berrigarak argitaratu zuen moduan. Tejabana hainbat tokitan aske zegoela ikusirik, Ikastolako mantenimenduko enpleguaren eta Udalekoen artean askatu eta izkinatxoan utzi zuten hurrengo batean handik kentzeko asmotan.

◆ HBren alternatiba

Aurreko ostegunean HBren alternatiba demokratikoa aurkeztu zen UNEDen. Euskal Herria eta Estatuaren arteko gatazkari irtenbidea emateko proposamenak aurkeztu zituen Rufi Etxeberria HBko Mahai Nazionalekoak.

◆ Hitzarmena

Gaur goizean sinatzeko zen Udala eta Irala zine aretoko jabeen arteko hitzarmena.



Artxiboko argazkian, presoan senideak Udaletxean egindako protesta ekitaldi batean.

ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABALETA, ESKORATZA eta OÑATIRA.

GURIDI altzariak
Era guztietako
altzariak
Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

TESTUA: IÑIGO ALBERDI
ARGAZKIA: JUAN IDIGORAS

III. KAPITULUA

SANTA MARINAKO ORGANOA

Oxirondoko eliza ederrean, aldi berean ederra den instrumentu bat daukagu; 1917. urtean Lope Alberdi y Cia etxek egindako organoa (monjazarretako organoaren marka berekoa).

Organoagatik 25.000 pzta. ordaindu zuten eta dirua herri-eskariz bildu zen.

Bi teklatu

Bi teklatu dauzka Santa Marinako organoak. Pedaliera eta 23 erregistro edo soinu des-

berdin. 1974. urtean berrikuntza garrantzitsu bat egin zen, organoa mantentzeko eta mekanismo sistema aldatzeko; egileak Azpeitiko Organería Española S.A. (OESA) izan ziren. Berrikuntza lanak bukatu zirenean, berrinaugurazioa ospatzeko, hainbat ekitaldi izan ziren, eta beraien artean, Don Pedro Garitano-ri eskainitako omenaldi bat ere egin zen.

1974ko erreforma hau garrantziko izan zela aipatu

dut, bi dira aldaketa aipagarrienak: erregistroen kopurua gehitzea, eta espresio mekanismoa aldatzea. 1917ko "bertsioan" organo guztia kaxa barruan zegoen, eta kaxa hura pedal bidez zabaltzen zen.

Erromantizismo berantiarra

Honek aldaketa haundiak lortzea posible egingen zuen; piano edo suabetik, fortissimo-ra, pedala sakatuz eta kaxa irekiaz.

Idea edo mekanismo honi, erromantizismo berantiar edo "dekadente" deitzen zaio, haren postuluak muturreraino eramaten dituelako.

Nota baxuen aberastasuna

Gaur egun erreformaren ondoren, soilik bigarren teklatua dago kaxa barruan, hau da, bigarren teklatua da soilik "espresioa". Normalean, lehenengo teklatua herri guztiak abesten duen kantua laguntzeko erabiltzen da, doinu ozen eta gorpuzduna behar baita.

Bigarren teklatua aldiz, doinu lehunagokoa da, eta bakarlariaren kantua laguntzeko erabiltzen da, orohar. Teknikoek organo honetan, bere nota baxuen aberastasuna aipatzen dute. Aipagarria da organoaren kolokazioa ere, berau

koru erdian dago, eta ez albo batetara, mendeetako ohiturari jarraituz.

Gauza bitxi bezala, 1930. urteko Lope Alberdi etxearen propagandako liburuxka baten, Santa Marinako organoa aipatzen da, beren lanen artean garrantzitsu bezala.

Ez da organo bakarra

Zurra da organo hau ez dela lehenengo eliza honetan. Badakigu 1750. urtean beste organo bat zegoela, baina ezin izan dugu informazio gehiago topatu. Dakiguna da, organo haiek ez zeudela koru erdian, baizik eta albo batean.

SANTA MARINAKO ORGANOAGATIK 25.000 PZTA. ORDAINDU ZUTEN 1917. URTEAN.



Duela 20 bat urte kotxe bat erosi eta 15 bat urte egin arte ez zen aldatzen. Denborak aldatuz joan dira eta poliki-poliki kanpoko kontsumatzeko ohiturak sartzen joan diren heinean kotxez sarriago aldatzeko joera gureganatu dugu. Orain kotxeak 7 urte egin orduko berria erostean pentsatzen hasten ei gara. J.A. Gorrotxategi, Peugeoteko saltzaileak dioenez, 80an 515 mila kotxe saldu ziren, salmenta gorantz joan zen eta 88an, ia miloi bat kotxe saldu ziren estatuan.

90etik salmentak beheraka

Golkoko gerra hasi zenetik, ordea, kotxeen salmenta beheraka hasi da. "Petrolioaren krisia



Kotxea erosi aurretik inguruko kontzesionarioetan begiratzen du jendeak prezio ona lortu nahian.

Kotxe berria

Kotxeen matrikulazio zerga jeitsi da

zela-eta gasolina igo egin zen eta salmentetan eragin izugarria izan du" dio J.A. Gorrotxategi. 90ean hasi zen beherakada, baina 92a urte ona izan zen eta berriz ere salmentek gora egin zuten. Hala ere, azken bost urteotan duela 10 urte saltzen zenaren erdia saltzen ei da. Renaulteko J. Aseginolazaren ustez, kotxe asko ez saltzeko badira beste arrazoi batzuk ere: "Bergaran kotxeetan aukera zabala dago, kotxe kontzesionario guztiak baitaude,

Berez Estatu espainiarreko kotxeak dira merkeenak, baina zergak direla eta (%28), inon baino garestiago saltzen dira. Kotxearen industria azkenaldian geldu samar dagoela-eta, pixka bat zuzpertz nahian, gobernuak matrikulazio zerga jeitsi egin du, %12tik %7ra, gasolinadun 1.600 cc eta gasoildun 1.900 cc kotxeetan. Kotxe saltzaileen ustez, neurriak ez du aparteko eraginik izango.

hortaz merkatua denon artean banatu behar dugu; konpetentzia gogorra dago. Horretaz gain, jendeak lan aldetik ez du ziurtasunik eta ez da auzartzen inbertsio gogor batean sartzen; bada ez-

pada ere jendeak dirua ez du mugitzen".

Zerga murrizketak eraginik ez

96 hasieratik matrikulazio zerga jeitsi egin da gasoli-

nadun 1.600 cc. eta gasoildun 2.000 (hasieran 1.900 esan arren, buletinean 2.000 artekoak sartu dira) baino kotxe txikiagoetan -50.000-100.000 pezeta bitarteko deskontua esan nahi du-. Kotxe



Kontzesionarioetakoeek diotenez, kotxe salmentetatik bakarrik ezin daiteke bizi.

saltzaileek adierazi dutenez, oraindik neurriak ez du aparteko oihartzunik izan. "Europar ez da matrikulazio zergarik, Europarekin parekatzekotan, fabrikatzaileek zerga guztiz eta modelo guztietan kentzeko eskatzen zuten, baina ez da hala egin. Gainera alde batetik zerga jeitsi egin da eta bestetik urteko igoera egon da, beraz oraindik salmentetan ez da asko nabaritu. Neurria sartu berria denez, aurrerago esan behariko dugu eragirik izan duen ala ez".

Saltzaileak bat datoz matrikulazio zerga %12tik %7ra jeitea baino, kentzea hobe litzatekeela esatean; betiko izan ezan, denboraldi baterako

bai, behintzat. Aurretik egindako deskontuek, ostera, izan dute eraginik, batez ere Renove 1 planak. Bigarrenak ez hainbeste, ordurako parkea berritu samar zegoelako. Vicente Gimenezek adierazitakoaren arabera, matrikulazio jeitsierak Fiaten izan du arrakastarik. "Guk igerrri dugu alde. Oso ondo saltzen ari gara. Dena den, bi kotxe 'urteko kotxe' izendatu dizkigute eta beharbada, horrek ere izango zuen eragina".

Deskontuak urte osoan

Kontzesionarioetan urte osoan egiten dituzte deskontuak, baina saltzaileak ez dira deskontu horien aldekoak. "Nahigo dugu prezio bat jarri eta horri eustea. Lehenengo kotxeen prezioak igotzen dira eta gero deskontuen bidez jeitsi egiten ditugu. Hobe da prezio bat ipini eta horri eustea".

Dena den, saltzaileen ustez kotxeak ez dira as-

ko garestitu; duela 10 urteko kotxeek ez dituzte gaur egungoek dituzten abantailak -Airbag, urrutiko itxitura zentralizatua, ABS...- eta hori dena kontutan hartuta esan daiteke ez direla garestiago.

Ondo begiratzeko joera

Jendeak kotxea erosi aurretik, zapata parek ez denez, ondo begiratzen du. Gehienek prezioa izaten dute kontutan, kalitateari eta segurtasunari hainbeste garrantzi emateke. Jendeak zer erosi erabaki aurretik inguruko kontzesionario guztietan begiratzen du. Donostiatik eta urrutia gotik ere etortzen da jendea prezio eta baldintza eskan.

Hala ere, kontzesionarioetakoei ez zaie interesatzen urrutiko bezeroak izatea, horiek zerbitzuren bat dutenean Bergararaino ez baitira etorriko. Opeleko Karlos Etxanizek dioenez, "jendeak uste du kotxe bakoitzarekin milioi erdi eta irabazten dugula, baina ez da hala, %10eko margena dugu, eta jakina, hortik behera ezin dugu pezeta bat ere jaitsi. Jendea prezio on bila Donostiatik-eta

"Etorkizunean badirudi etxe bakoitzean kotxe handi bat eduki beharrean, kotxe bat baino gehiago eta txikiak edukiko direla"



zumelaga

JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio,
5 BERGARA
☎ 76 20 21

ZUBIETA

elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behe
☎ 76 23 48

"Bergaran kotxeetan aukera zabala dago, kotxe kontzesionario guztiak baitaude, hortaz merkatua denon artean banatu behar dugu"

etortzen zaigu, baina guk nabia dugu hemen inguruko saltzea, hauek izango baitira gero tailer zerbitzua erabiliko dutenak. Urrutikoak saldu eta gehiago ez ditugu ikusiko". Saltzaileen iritziz, saltzea gero eta zailagoa da: "lehen salmenta eskatutako prezioan egiten zen, orain, ostera, jendeak eskaera handiak ditu, pintura dela, irratia dela... aurki gehiago eskatzen hasiko gara". Hala ere, prezioa aintzat hartu arren, mantentzen eta konponketak zerbitzuari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio, "kotxea konpondu bitartean beste kotxe bat lagatzea, esaterako".

Salduenak erdi mailakoak

Kontzesionario guztietan saltzen diren kotxerik gehienak, askok bestelakoa uste arren, erdi mailakoak dira. Seat, Audi, Volkswageneko Felix Elorzak esan digunez, nahiz eta kotxe merkea ez izan, iaz eurek gehien saldutako kotxea Audi 4-a izan zen (24). Demetrio Rodriguezek dioenez, "kotxe bat baduzu, burrringoa handiagoa erosi-

ko duzu; askotan jendaurrean itxura egiteko besterik ez da izaten baina... Hala ere, ikerketan arabera, etorkizunean badirudi etxe ba-

ren eskukoa eskuratzen dutenak ere. Batez ere, gazteak izaten dira, eskua hartzeko erosten dute. 2. eskuko kotxeak direla eta erosle askok, ondo egon-



Kotxerik gutxien orain saltzen denez, orain da erosteko sasoirik onena.

koitzean kotxe handi bat eduki beharrean, kotxe bat baino gehiago eta txikiak edukiko direla".

2. eskuko kotxeak, onak

Kotxea erostera joaten diren denek ez dute berria erosten, badira biga-

go ez direlakoan, mesfidantza adierazten dute. Citroeneko Karlos Goitieren iritziz, "2. eskuko kotxea saltzera etortzen denak esaten digu primeran dagoela, ez duela sekula arazorik izan; erosi behar duenak, berriz, mesfidantza adierazten digu. Dena den, sekula

Garrantzitsuena saltzea da

2. eskuko kotxeen salmentak ez die berriei kalte egiten. Kontzesionarioek urtean kupo bat izaten dute saltzeko eta bete egin behar izaten dute. Vicente Gimenezek dioen bezala, kontua saltzea da.

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83


Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraletan.
Tfnoa: 76 27 93



Gaur egun saltzen diren bigarren eskuko kotxeak ondo daude. 10 urte baino zaharragoak desguazera eramaten dituzte.

"Bigarren eskukoa ala berria, berdin da. Bakarrik berriak saltzen badiugu bigarren eskuko guztiakin zer egingo dugu? Derrigorrez saldu behar ditugu. Zenbat eta

kotxe gehiago saldu, lan gehiago izango dugu tailerrean -ordezko piezak, konponketak...-" Dena den, Felix Elorzaren ustez, tailerrean gero eta lan gutxiago egiten da:

"kotxeek mantenimendu txikia dute; txapan golperen bat izanez gero txikia izaten da, eta handi bada, berriz, aseguro etxeek txatarrarako dagoela esaten dizute, beraz, tailerrean ez dago leben beste lan".

Korearren beldur?

Gero eta kotxe gehiago dagoenez, saltzaileek lehia handiagoa dute eta erosleek gero eta aukera zabalagoa. Gainera gero eta informazio gehiago zabaltzen denez, jendeak erosi behar duen kotxeaz asko jakiten du. Saltzaileek etorkizunean orain baino konpetentzia handiagoa izango dutela ematen du, 2.000 urtean kotxeak saltzeko merkatu librea egongo denez, ekialdetik kotxe marka berri ugari sartuko baita. Nissa-

neko -marka japoniarra da- Nonito Blancoren iritziz, eurentzat merkatu librea sartzea oso garrantzitsua izango da, kotxe modelo gehiago ekartzeaz gain, kupoa ere handiagoa izango dutelako. Dagoeneko korear batzuk ezagunak dira gure artean (Daewoo, Hyundai...).

Saltzaileen artean era guztietako iritziak daude. Zenbaiten ustez iaz 3.795 kotxe Daewoo saldu izana oraindik erabat sartzeko dagoen kotxe baten zat asko da. Blancoren ustez, berriz, ez dago beldurtzeko arrazoirik: "Eskulan merkea dutenez kotxe merkeagoak dira, baina teknologikoa eta kalitatea ez da puntakoa". Arrazoi honetaz gain, dio, ematen duten zerbitzua ere behar bezalakoa ez bada ez dutela arakastarik izango.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
 ESTOMBA
 GOMEZ
 MURGIENDO
 OTALORA
 RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18



Imanol Sorondo (Hernani), Aintzane Arrieta (Aulestia) eta Iñigo Iñurrategi (Bergara) aurtengo irabazleak.

Lehiaketa arrakastatsua

Asteazkenean banatu ziren Jardunek antolatutako amodiozko gutunen sariak. 1. saria -75.000 pta.- Imanol Sorondo hernaniarrak (26 urte) irabazi du, "Maitasunaren ikasgaia" lanagatik. Epaimahaiaren iritziz, amodio ezinezko baten kronika da, idazkera txukuna, xehetasun handikoa eta oso literarioa. Bigarren saria -40.000 pta.- "Glory" gutuna tarteko Aintzane Arrietarentzat izan da. Gutunaren ezaugarrien artean na-

turaltasuna, errealismoa, estilo zuzena eta zehatza nabarmendu ditu epaimahaiak. Iñigo Iñurrategik (22) irabazi du Bergarako onenaren saria -25.000 pta.- "Hurrengo whiskyxa hire izenian" lana dela-eta. Freskoa, kontraste handikoa, baikorra, desparpajoduna, txistosoa... horrelakoa da bere eskutitza.

Epaimahaia Joxean Sagastizabal eta Patxi Zubizarreta idazleek, Arantzasu Loizid kazetariak eta Asier Serra-

no poetak osatu dute. Hauen iritziz, oro har, lanak oso dramatikoak edo trajikoak izan dira, eta umore, erotismo, pornografia eta freskotasan falta nabarmendu dute.

Epaimahai honetaz gain, irakurle gazteek osatutako epaimahaiaren saria ere eman zen. Gazteentzat ere amodiozko gutunik onena Imanol Sorondok idatzitako "Maitasunaren ikasgaia" izan zenez, Diaz de Zerrioren eskultura ere hernaniarrak ira-

bazi zuen.

Amodiozko gutunen lehiaketa, urtez urte, gero eta arrakastatsuagoa da. Aurtengo edizioan 176 gutun jaso dira, bergararrenak 53, gai-nontzekoak EuskalERRI guztitik iritsi dira. Aurtengoan ere emakumezkoak izan dira amodio kontuetan nagusi, 102; parte hartu duten gizonnezkoak, berriz, 74 izan dira. Hala ere, aurreko urteetan baino mutil gehiagok parte hartu dute.



Sari banaketa ekitaldiko aurkezleak.



Musika Eskolako boskoteak animatu zuen ekitaldia.



Oihulari Clown taldeak umorea jarri zuen.

1. saria eta irakurle gaztearena:

Imanol Sorondo 26 urte (Hernani)

Maitasunaren ikasgaia

Kaixo Aitor Iaztana,

Bigarren ebaluazioko notekin batera ailegarazi dizudan paper hauek ez dute zure errendimendu akademikoarekin inolako loturarik, hortaz, ez zaitez larritu ez baitiezu honako gutuna gurasoei aurkeztu behar. Gehiago esango nuke, bihotzez eskatuko dizut inori ere ez erakustea niretzat kalterik ez baduzu nahi eta irakurri bezain laster ahal duzun zatirik xehenetan txiki-txiki egin dezazun. Zure esku nago.

Zure esku nagoela diot eskutitz hau aditzera emanez gero ikasle lanbide honetan segitzeko hamaika arazo eta oztopo sortuko litzaizkidekeelako, ikasturte erdian zehar nozitutako sufrikario isila kontatzera noakizu eta. Nire kontzientzia garbitzeko dela esango nuke, dena dela, ez dut uste gauza okerrik egin dudarik, baina bada ez bada guztia ezkutuan geratzea gustatuko litzaidake, orain arte bezala.

Oroituko zara irailako egun epel jada nik urrunetan eskola honetara bi hilabeteko ordezkapena egitera etorri nintzena. Zein ilusionaturik nentoren, joan zen ekainean lortutako eta oraino bero-bero besapean nekarren tituluarri erabilpena emateko irrikitan! munduko irakaslerik onena eta atseginena bihurtzeko prest nengoen, ikasle oro nirekin maitemindu eta neuk irakatsitako gauzek luzaroen iraun zezaten intensioa nuen, bai inozoa izan nintzela! Orain, bost hilabete gogor pasa ostean, seguru batek baino gehiagok gorroto izango nauela, baina lanbide honen morrontzak direlakoan, ohituko naizela uste dut. Zuk, Aitor maite eta gogoratuak, ez duzu nigana gomuta txarrik ez da?

Ezer irakatsi beharrean, ikasi eta ikasi aritu naiz. Gauzak zelaz ez diren egin behar deskubrituz, ikaslearen begirada sarkor bezain mingarriak nola jasaten diren ikasiz, literaturaren asmakizun ergelak ei ziren ezinezko amodioak egiatan esistitzen direla nire azalean frogatuz,


maitasunaren ustekabeko azkonak larru mehea zulatu eta bihotz gajoa alderik alde erdibitzen duenean, ingurazten gaituen munduarekiko daukagun ikuspegia goitik behera aldatzen digula ikusiz... orain artean aintzakotzat hartu ez ditudan horrenbeste arazo datozkit burura!

Heldu nintzen, bada, herri honetara, astebete eskasa zela jasotako dei batek honaino erakarrita. Oso azkarra izan zen guztia, gaia prestatzeko astirik ez eta aurreko irakasleak zerabiltzan liburuak, apunte sorta zein ariketak hartu nituen abiapuntutzat. Urteen ixipu setatsuak horizatutako paperak ziren haiek, niri erakustea gustatuko litzaizkidekeen gaietatik oso urrun. Baina, nire materiala moldatzen hasi bitartean, hura nuen erreferentzia bakarra, nahikoa kaskarra egia esan.

Estreinako klaseak zalantzaren eta ohitura faltaren zimendu mugikorretan oinarrituta altxa ziren, zutabe malguak bailiran. Ordurarte ikasle zuhur eta gupidagabea izandako honek neure atzean neukan arbela, eta hogeita hamar aurpegi zorrotzetako begiak tinko nigan finkaturik. Hirurogei begi krudel. Haien artean, gainera, dizdira berezia igortzen zuten bi deskubritu nituen berehala, nire belaunei indarra lapurtzeaz gain, ene sabelean lotan neraman tximeletaren hegoak suspertu zituzten beginini urdin ia berdeak. Handik, sorbalda ikasgelaren gibelaldeko paretaren kontra zeneukala eta aulkiaeren atzeko bi hanketan apoituta, ez zenuen detaile alerik ere eskapatzen uzten.

Ikasleoi bizkarra ematen nizuen orotan erasotzen zidan hotzikarak, behatz izoztu batuzuk ferekatzen zidaten lepoa, astiro-astiro, bizkarezurrean behera, omoen eskailera minberatik gerrirako bidea hartzen zutelarik. Esku hotz eta ikustezin horiek gerriaren bihurtzea hartu eta sabelerantz irristatzen zitzaizkidalda somatzen nuenean, berdin zion idazten ari nintzena bukatuta egon ala ez, ziztu batean biratu eta amasestuka begiratzen nuen klaserantz.

Guztiek ziharduten, arbelean akatsez jositako letra dardarti lain aldakorrez idatzita zegoen testu korapilatuari so, fitsik ere ulertu barik, jo eta ke kopiatuz. Denek, zuk ezik. Besoak gurutzatuta eta aulkian ba-



"Ene sabelean lotan neraman tximeletaren hegoak suspertu zituzten beginini urdin ia berdeak". IMANOL SORONDO

lantzatuz, irribarre maltzurra sumatzen nuela iruditzen zitzaidan, ziur nengoen zure eskuak arestian nire soinean oilo-ipurdia eroin zutenak zirena. Ez nuen zalantza izpirik ere.

Zer boteretsu batek hitzaren ahalmena kendu zidala sentitu izan nuen maiz egun gogaikarri haietan eta, adimena izaki beldurgarri haren ikustearekin lausotuta neukanez, nekez erantzuten nien zuek itaundutakoei. Horretan ere zeu zinen ankerrena. Ez zinen besteen sinplekeriak galdetzearekin asetzen, gehiago nahi zenuen. Nere buruaren hondartza zabala eta irekia uste nuenera ordura arte noiz heldu ez ziren baga apartsuen abarrotsean garraiatzen zenituen galderak, marinel galduen emazte eta amek naufragioaren hondakinak hare bustian indarge dautzatela ikustean bezalaxe, angustiaren ganibet hotzaren zitzadak euren barrunbeak hustutzen dizkiernean pairatzen duten mina nigan jasanaraziz.

Ez zen gaiaren inguruan neuzkan hutsuneak agerian jartzeak gehien samintzen ninduen, nahiz eta

horrek zekarkidan buruhauste mordoa batere arbuigarria ez izan. Ez, ez zen hura latzena, uneoro biluzik eta bortxatuta sentitzea baizik, adimen makur baten harietatik zintzilik egotearren sentsazioa, eskenatokian, atsegin ez zitzaidan pertsonaia hutsal bezain barragarri baten antzeppen goibela burutuz, txontxongilo zaharkitua bainintza.

Zeuren zinen hor goitik gidatzen ninduen. Gabonetako garaia helteaz zela ez nuen nortasunik jada. Zure klasean nengoelarik, buztinezko oinarri batean zut sartutako adar puska batean itsatsita, disekatutako txoria nintzen, espresiorik ez zuten kristalezko begirada, errairik gabeko magala, zeruko airea harrotzeko gogoa joan zitzairen hegoak, kanturik gabeko moko hertsia.

Gainerako taldeetan, gorabeherak gorabehera, normaltzat jo daitezkeen hankasartze zein arrakastak nituen, "UBI A" letrak bernizaren gainean pintatutako atera inguratu ahala, aitzitik, kemenak abandonatzen ninduen, amiltzera doan autotik salto egiten duen gizaki es-

tutuaren antzo.

Nire ikarrekin bakarrik geratzen nintzen.

Eskerrak Tomas Deunaren eguna gertu zegoenari, horri zor nion geratzen zitzaidan gogo apurra. Nola-hala heldu nintzen oportetara, sekulan pasa ordutan egunik amaitezunenetak oduen taxatka astirotsuaren desesperazioa uxatzeko ezgauza. Iritsi zen, finean, horrenbeste itxarondako ueña.

Nola deskriba nezake, paradisuaren egun bakan batzuek baino ez nintzela, ohizko irakaslearen erreku-perazioa ueste baino gehiago luzatu eta, gutxienez, otsaileko lehen astezera bitartean postu hartan jarraitzeko manatua heldu zitzaidanean, nire burua zeharkatu zuten ideia hitsen erauntsi nahasia?

Amore eman nuen ia, etsitua nengoen erabat. Arrapaladan erriko ziren egutegiko orriak, norbait torturari berrekiteko desiraren sugarretan urtzen balego bezala.

Berria urtezar eguneko eguerdian ezagutu eta gauean antolatutako parranda itzela izan zen. Lana zela eta sakabanatuta geunden koadrilako neska guztiak kalera atera ginen nork bere mamuak jipoiu asmoz. Gezurra badirudi ere, estudiatzen ni-harduera hamaiakotxan gauzatuak erokeriatan inoiz eginikoa egin nuen: aitzakiarik gabeko mozkorra harrapatu. Egoera penagarri hartan, ohartu orduko tipo zabar baten besoetan bahiturik nenbilen dantzan, nire lagunengandik galduta. Gizaseme asto haren igurtzi eta astindu lizunei aurre egin ezinik, begiak itxi nituen ene pentsamendu desorekatuak behar bezala ipintzeko. Ezinezkoa zen, gero eta okerrago nengoen eta tipoak txanpain botila nintzela-koan eragiten ninduen nire ondoeza larrituz.

Bultzakada bortitz bat somatu nuen amets lainoetan eta, bapatean, lasaitasuna.

Heldu egin ninduten berriro, arestian ez bezala, ordea, samurrak ziren besoak eta geldoa mugimendua. Goxoa. Uste baino txispatua goa nengoela otu zitzaidan, ai ama, zer egin nahi dit honek? Begiak zabalatzeko beldurrez segitu nuen horrela, ez zegoen gaizki, garraisi eta kantu ozenen iskanbilan, musika mutu baten doinuan ari nintzen esnatzen. Begiak nahi gabe ireki eta, naturaltasunez, zentimetro eskase-

tara nituenei so paratu nintzen ez dakit zenbat denboraz. Ezagunak ziren, ezagunegiak.

Zu ez zinen ohartu. Zorionez. Eskolara apainguta eta itxuraldatuta nindoan, gau hartan, aldiz, jaiari arimaraino bustitzeko helburuaz irten nintzenez, ia neskatxa baten trazak nituen eta ez ninduzun ezagutu. Zure begietan pakea nekusan, klasean ez bezala. Norbaitek eskainitako edalontzi bati ezetz esan eta aurpegia estaltzen zidaten tximak txukundu zenizkidan. Musu bat ematera zindoazela pentsatu eta, jasotzeko prest nengoenean, -Adio, ikusi arte.- soil batez agurtuz joan zinen zure lagunekin.

Besterako gogorik gabe etxeratu nintzen eta, biharamunean, kalimotoxoaren oroitzapen hutsak gaisotzen baninduen ere, ederki nekien gertatutakoa amets bat ez zena.

Gau hartan, lehena, oraina eta geroa mugatzen zizkidaten lerroak agertu ziren, maitasunaren epelean ikusgarri bilakatutako tinta ikustezienez marratuta baileuden.

Oporretan, lanean arituko nintzen klaseak ongi prestatzen, eskolan geratzen zitzaizkidan lau asteetan lehen egindako hutsen zapore garratza ezabatzearen. Nire etxetik itzuli nintzen hona. Zure historiari eskatu nion ikastetxeko idazkariari. Hortxe zegoen koska! aspertu egiten zintudan, ez zenuen motibazio-

rik, errepikatzen ari zinez dena harrezkero entzunda baitzenukan... nirea zen zeozer egiteko ardurara, ikasitako guztiarengan sentitzen nuen maitasuna eta atsegina kutsatzerantz nindoan.

Zentruko liburutegitik irten gabe pasa nituen ia zazpi egun, neu bakarrik, kanpoko elur maluten erorketa arinak zure barruan gordeta zeneraman sentsibilitatea aterako nizula oroitarazten zidatelarik.

Eta heldu zen eguna, indarberri- turik bultzatu nuen UBI A atea. Aske neraman ilea, musuak koloreetatik garbi, galtza bakerio gastatuak eta alkandora gerriak estutu estutu. Zure aurpegitik asperraren maskara zurruna erori eta lurreko baldosen kontra mila zatitan puskatzean egin dako uestezko zaratak gortu ninduen. Mahaian jarri nituen paperak eta inork antzeman ez zuen keinu bat bidali nizun, oroitzen?

Gerokoak egun bereziak suertatu zaizkit. Zure galderak maitagarriak bihurtu dira eta hemezortziak egin berriak dituzun arren, nik biltzen dudana duzula hauteman dezaket, hemen barruan.

Ezinezko maitasuna deitzen zaiotz honi, sentitzen dute, zurekin guzti honetaz hitz egin nahi nuke baina... ez da posible. Maite izan zaituen irakaslerako ikasle bat,

Itziar.

2. saria:

Aintzane Arrieta 28 urte (Aulesti)

Glory

1995eko San Andres biharamona.

Eta orain zer?

Dagoeneko errime neska zahartutako honen lehen eta azken aitortza izango duzu haxe, honela bada... badakizu: zuzenean beheko sutara bota edo aurrera egin.

Hamahiru urte bete nituenean jabetu nintzen mutilkeria franko egin arren neskatuta nengoela. Nebak eta hirurok sarri olgetan genuen sasoi hartan elkarrekin. Akordatzen zara auzokoaren artotzan sartu eta gero anpolai lapurretan zelan gozatzen genuen? Egun batetik bestera ordea lotsa, ikara... zer zen ha hura... bihotza zartatu zenidala konturatu nintzen. Harez gero bihotz honen arrakalak denen eta batez ere zure ageriko zirelakoan, zuen etxe aurretik ez pasatzen, olgetako sasoi- an beste zeregin batzuk asmatzen, berba batean, zeure aurrean ez pasatzeko edozer egin nuen.

Alferriko lanak oro, baina artean gazte eta ezjakina ninduzun.

Handik lasterrera koadrilako



"Eta adio esan behar zuri ere haragizko zaren horri, datorren astean Ameriketaratuko baitzara". AINTZANE ARRIETA

baten atzetik Ondarruko morrora joan ei zinen . Ikustekoa zen berak nola kontatu zigun bezperako hazarria! Baina nik... ez sinisten. Zu, zu zelan izango zinen ba hain gustu exkaxekoa? Ez! urtebete zaharrago eta esperientzia handi usteko kokola hark asmatuko zuen dena, musuaren irudi abstraktuena baino besterik ez genuenoi burua gal-galean jartzeko. Eta urteak joan, etorri edo egon egin ziren.

Zu Ameriketara zestan egitera, urtean sei asterako herriratzen zinen. Ohitura denez kanpoan egon den herrikoa ondo hartu behar da, jepada handia eta musu bi emonaz. Orduan ere zuen etxe aurretik pasatu baino nahiago popa erre! Baina zuk beti ikusten... Anpoloia hits lagatzen nuen nik holakoetan! Jo! zelan "señoritu" zaren! Bai? Aguuur! Eta hurrengo urterarte.

Zu Florida aldean kixkaltzen eta besteok tropikaltzenago doan EH hau lehenakora bueltatu nahian santuak uretan igeritan jartzen.

Bart herri-afaria. Sekulako jende mordo. Jarri egin behar. Ez hor ez! esan nahi nion Martari baina bera zuzenean zeure papera. Zure begi adarjotzaileak bizi-bizi, meleen ezkutatu gura zuten aurpegi odolgabe honi so. Berba gutxi eta ardo baltz txar asko. Bapo.

Urteeran izan zen, bakarrik gertatu ginen une laburrean.

Zeureganatu eta gustukoa zaitut. A bai noiztik, burla nik, bion begiak dirdaitsu. Ez dakit. Estutu estutu egin ninduzun zeure kontra eta musu beroz jan. Gorputzak ikara. Ezpainak ezpainaldea miatu bitartean zure esku beroak ipur masailak atzean utzi eta toki sakratuenaren bila zebiltzan. Gozamenen dardara. Benetako plazerra, gehiago nahiak gogoa hustu eta dantza eragin zigun. Kotxean, non bestela? Hala moduz, nola bestela?

En fin, eta orain zer?

Uxatua idolo izandakoa, adio esan behar maitasun izpiritzuko ondo gordeari.

Eta adio esan behar zuri ere haragizko zaren horri, datorren astean Ameriketaratuko baitzara.

Dena txik-txak batean deuseztua, ni uzkur ilun eta herabe biziko naiz kantariak dioen bezala, edo beharbada ez.

Noraezan bai, non ere baita. Zein mahastitako ardo txuria edan



"Beste whisky bat. Musika puta hau... Kaka!! Berriz be ametsetan eñ jonat eta dana gezur hutsa besteik ez!". IÑIGO IÑURRATEGI

ahal izango dut hemendik aitzina? e?

Adio, ondo izan eta gogo baduzu ere ez erantzun, arren.

Bergarar onenaren saria:

Iñigo Iñurrategi 22 urte

Hurrengo Whiskyxa hire izenian

Bergara, neguan.

Aupa potxola:

Zoratuta najan ziero eta etxaukanat egoera estandarera bueltatzeko asmorik. Ja! Eguneroko erutina puta honek total gurutzatuta jaurkan nire gorputz guztixa baina nire burmuineko neurona anarkikuenak hiltzatuko dittuen erutinaik ez don sortu ondiok: amets lizunetan blai, neurosisan eskilaretan gora eta behera, garrasirik mingotsena alkoholak in igurtzia.

Etxaukanat erremedioxi eta egunero mozkortzen non; batzutan arrazoiakin, beste batzutan arrazoi barik baña beti be arrazoia galduz;

itsuen artian errege, monarka postmodernuen enbidiaik etxaukanat.

- Zurito bat.

Gabaz amets eitten jonat; egunez ametsetan bizi non; beste harek esaten zeban bezela, berriz, gauza guztiz irrealakin nahi jonat amets eñ: errealidadetik gertu samar daon zerbaittekin amets eñ ezker, esnatzerakuan, egixa izan zeikielako eta normalian hola ez dalako gertatzen, barren guztixa ezintasan astunez betetzen jatan, eta ari miak, zurito honek bezela, aparrak puztuta behia jotzen jon.

- Beste zurito bat. Ez, whiskyxa izan deilla.

Joder! Ezin jonat begi artetik kendu. Hobeto esanda, ezin haut pentsamendutik bialdu. Ihesi najabin.

Aurreko baten kolega batek barkardia presentau jostanan eta arrezker sari irtetzen gaitun elkarrekin. Ez, ez don rollo serixua, ezain pentsau; gure relaxiua elkarrekin irtetzer bakarrik mugatzen don. Baña edarki pasatzen jonau.

Edarki... Aspaldixan kanuto asko erretzen jonau eta gezurra esatia zein erreza dan be ahaztuta najaukanan.

Ze kristo! Ni edarki hirekin egongo nintzonake eta agur droga, musika kutre, telenobela eta peliku-

la amerikauetako kalamidade guztixei! Bixok juango gaitun, eta barkardia atzetik emongo jotsanau, eta bidian topatzen dittugun kabroi guztixak akabauko jittunau, eta larritan eingo jonau, hik nirekin eta nik hirekin, eta ilargixa geuria izango don, eta PPK elektiñuak galduko jittun, eta kaliaz billuzik ibiliko gaitun, eta Tele 5n maitasunezko ipuinak kontauko jittune, eta militarrek paruan egongo dittun, eta behin eta berriz korapillatuko gaitun laztanetan, eta Txapa irratixak Butanitok baino audientzia geixau izango jon, eta tabernak gau ta egun zabalik egongo dittun, eta...

- Beste whisky bat. Musika puta hau... Kaka!! Berriz be ametsetan eñ jonat eta dana gezur hutsa besteik ez!

Baina arren entzun: mozkortuta egon arren maitte haut, eta kasu eidan, ze nik mozkortuta nagonian sekula baino gehixau maittaten jonat.

- Aldatu musika, bai?

Igual ez haiz niretzat izango, laztana, ezta ni hiretzat be, baina odoletan esnatuko naizen arren hirekin eingo jonat amets, betirako.

Mozkortuta, bi mozu. Maitte haut.

Itxaropena.

P.D.: Hurrengo whiskyxa hire izenian.

Osasuna

Siropea

Siropea modan jarri omen da. Zer da? Zertarako erabiltzen da?

- Astigarraren siropea eta palma siropearen arteko nahasketa da eta guxtienez 40 urte dituzten arbolak erabiltzen dira. Arbola horien sapa (landareen izerdia) erabiltzen da siropea egiteko eta sirope litro bat egiteko 40-50 litro sapa erabiltzen omen dira. Iparramerikatik datorren inbentua da eta indioek ere erabiltzen zuten bere garaian. Hemen gorputza desintoxikatu eta argaltzeko erabiltzen da orain pare bat urtetik.

- Dirudienez, 10 bat egunetan hori besterik ez da hartu behar...

- Horrela da bai. Egunean 8 baso ur hartu behar dira eta baso ur bakoitzari bi koilarakada sirope bota behar zaizkio. Horrez gain egunero limoi zumo erdi edan behar da. Bestalde, gorputzaren desintoxikazioa lortzeko, gaez laxanteak hartzea komeni da, barruak libratu ahal izateko. Eta hamar egunetan hori

bakarrik hartzearekin nahikoa da.

Bestalde, badira goiz eta arratsaldez siropea hartu eta gaez afari garbiak egiten dituztenak ere: entsaladak, barazkiak eta horrelakoak.

- **Bizitza normala egiterakoan indar faltan egoteko arriskurik ez dago?**

- Ez, mineraletan oso



PILAR GISASOLA
(Izadi dietetikakoa)

aberatsa da siropea: burdina, manganesoa, zinka, kaltzioa, magnesioa, potasioa edota sodioa ditu eta horrez gain karbono hidratoen kopuru altua dauka. Ez du ez nekerik, ez urduritasunik ekartzen

siropeak. Lan normal bat egitekotan behintzat ez dago indar faltaren arriskurik eta lan neketsua izatekotan fruta ere hartu daiteke osagarri modura.

- **Zeintzuk dira emaitzak?**

- 10 egunez egiten duten %70ak 5 Kg. edo gehiago argaltzen dira. Gainera, esaten dutenez behintzat, kilo horiek ez dira berriz errekupeztzen eta metodo honek ez du inolako arriskurik. Azken batean organismoaren desintoxikazioa lortzen da eta gorputzaren onerako izaten da hori.

- **Noiz egitea komeni da baraualdia?**

- Udaberri aldera hobeto etortzen da, ordurarte jendea ez baita pisuaz kezkatzen. Urtean zenbat bider? Pare bat aldiz eginda nahikoa izaten da. Gazteek zaharrak baino askoz ere errezago egiten dute, 20-22 urte bitarteko gazte dexentek egiten dute. Siropearekin hasi baino 2-3 egun lehenago barazkiak, fruituak eta grasa gutxiko janariak hartzea gomendatzen da.

- **Bukatzeo, baraualdia egin gabe, argaltzeko beste metodorik?**

- Denok dakigu kilo batzuk kentzeko zer egin dezakegun: arraina eta haragia plantxan, barazkiak, fruituak, entsaladak eta horrelakoak beti ondo etorriko zaizkigu.

"Gorputza desintoxikatu eta argaltzeko erabiltzen da siropea orain pare bat urtetik"



Siropea egiteko arbolen sapa erabiltzen da.

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak

Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Ligatzen al duzu? Erraza ala zaila da Bergaran ligatzea?



Igor Iñurrategi
19 urte, ikaslea

Nahiko nekeza, beste herrietan gertatzen den antzera. Zergatik? Neskak eta mutikoak banatuta ibiltzen garelako beharbada.



Unai Sánchez
16 urte, ikaslea

Suerte baldin badaukazu ligatu daiteke, neskekin berbetan hasi behar horretarako...



Enara Iglesias
16 urte, ikaslea

Zaila da. Honez gero denek neska daukate eta... guztiak okupatuta daude eta horrela ia ezinezkoa da.



Virginia Fernández
16 urte, ikaslea

Zaila da, mutil gutxi daude eta. Hori da nire ustez arazorik haundiena, ez dut besterik ikusten.



Maribel Álvarez
16 urte, ikaslea

Niretako ere arazoa hori da, mutil gutxi daudela. Hala ere, beste herri batzutan errazagoa da ligatzea. Jendea ez ezagutzean, errazagoa da mutilekin berba egitea.




Igor Franco
17 urte, langilea

Zaila da bai. Hemen jende gutxi gara eta beste herri batzutara joatean, Elgoibarrera adibidez, erraztasun gehiago izaten dira.

Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

LARREA
TABERNA
Kale Barren, 17
ANTZUOLA

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78



Negargura

Joan zen domekan "Los puentes de Madison" pelikula ikustera joan nintzen Bergarako Novedades zine aretora. Banekien sentimentuz jositako filmea zela, baina sekula ez ditut ikusi bi aktore, Clint Eastwood gogor bigundua eta Meryl Streep, hainbeste negar egiten. Ez haiek bakarrik, ikusleren artean ere somatu nuen mordoxka ari zela malkoak lehortzen.

Neu beti izan naiz negar errezekoa, baina azkenaldian konturatu naiz geroz eta gehiago kostatzen zaidala. Malkorik isurtzeke bukatu nuen pelikula. Meryl Streep zahartua, ohean agonian zegoen bere gizon gizarajoaren alboan etzan zenean hasiko nintzela uste nuen, baina keba.

Ez zaie falta arrazoi pixkat urteak ez dutela barkatzen esaten dutenei. Nire bihotza, beharbada burua, geroz eta gogorragoa jartzen ari da eta hori txarra dela uste dut. Pelikuletan ez ezik, benetako bizitzan hainbat hilketa, injustizia, arduragabekeria, axolagabeko portaera, kontraesan... ikusi eta jasan ondoren, negargura ere agortu egiten zait. Pozak garraztu eta tristurak erlatibizatu ditut.

Ez dakit gure gizarte hau bizi naizen artean konponduko den ala ez. Hemezortzi urterekin epe motzerako helburua ikusten nuena, neure aurrean amaierarik gabeko persekuzioari iheska doan zerbait harrapaezina bihurtu da hogeitamaikarekin. Eta ez da bakarrik arazo politikoa, beste zerbait ere badago azpian. Bitartean, sagardotegiak beteta, txotx gora eta sagardoa lurrera. Zela egingo dut ba negar...

Joseba LEZETA



Herri txikiak

Badatorkigu erreforma! oihuka bazebiltzan aspalditik, baina otsoa eta artzaiaren ipuinean bezala, azkenen heldu da, erakutsi ditu belarriak eta artaldea, oharturik gainera datorrenaz, hasi da urduritzen. Alde pedagogikotik zeharo bidezkoa iruditzen zait Irakaskuntzaren Erreforma berri honek planteatzen diguna, ikasketa prozesuko aspektu guztiak hartzen baititu kontutan ikasleen kurrikuluma egiterakoan eta orain artean aleritiz lantzen ziren arloak ere zehazturik azaltzen zaizkigu. Antolaketa aldetik 12 urtetik 16ra arteko ikasketak ikastetxe berean egin behar direla dio. Ondorioa nabarmena da: luzatu edo laburtu egin behar da oraingo OHOKo ikastetxeen eskaintza eta honek zeharretara kritikagarria den egoera sortzen du ikastetxe bakarra dagoen herri txikitik aplikatzen denean, ondorio pedagogikoez gain soziologikoak ere berarekin dakartza eta. Hau larriagoa egiten da erabakia goitik-behera datorrenean.

Herri bat ez da paisajea edo industria soilik. Eskeintzen dituen zerbitzuak oinarri-oinarrizkoak dira jendea herriarekin identifikaturik egon dadin. Bertan sortzen den giroa, kultura... zuzenean daude horrekin lotuta. Eskola zerbitzu hauetan oinarrikoenatarikoa da. Eskola kenduz, hamabi urtetik gorako ikasle guztiak beste herri batera ikastera eramanez, herri baten nortasunak asko galtzen du eta horixe gertatuko da Antzuola eta Elgetarekin, gauzak ez badira zuzentzen behintzat. Deszentralizazioaren garaian, aurrerapen teknologikoez ere hainbat posibilitate eskeintzen diguten garai honetan, ez dezagun gal herri bakoitzaren nortasuna defendatzeko aukera.

Jose Angel MIKEO

**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

bazkari eta
afariak

**Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR**

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**EDEL
TAPIZDENDA**

*Etzerako artikuluetan aukerarik
haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoia, etab.**

**Zure bulegoetan giro atsegina behar
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik
egokienaren berri eskatzea.**

Bidekurutzeta, 14 BERGARA



■ **Bergarako Udaletxea Italiara**

Bergarako Udaletxearen berritze-lanak aztertuko dira martxoaren 28tik aurrera Bolonian, Italian, izango den **Nazioarteko Arkitektura Kongresoan**. Guztira, Europa osoko 300 bat lan izango dira aztergai eta **Bergarako Udaletxearen** berritzearekin batera **Donostiako Konstituzio plazaren** proiektua ere Bolonian izango da. Gipuzkoatik aurkeztutako bi lanak panel informatiboen, ibilbide historiko baten eta plano eta argazkien

bidez azalduko dira. Boloniako erakusketa, besteak beste, Parisen edotaartzelonaan erakutsiko da jarraian eta, era berean, aukeratutako 300 lanak bilduko dituen katalogo bat kaleratuko da. Gogoratuko duzuenetz, Udaletxearen berritze-lanak **Iñaki Aspiazu** arkitektu bergararrak gidatu zituen **Iñaki Berasategi** arkitektoaren laguntzaz eta lanak Construcciones Amenabar enpresak egin zituen 1992tik 1995era bitartean.

■ **Susto ederra**

Transportes Guesalibareko kamioi bat irauli zen **Ugarrixa** inguruan asteazken arratsaldean. Langileak deskargatze lanetan ari zirela kamioia errepidetik behera jausi zen eta, zorionez, gutxiगतik, ez zituen behean ziren bi langileak zapaldu. **Luis Mari Ozaetak** kamioiko gidariak ere ez zuen kalterik jasan, harrigarria badirudi ere. Guesalibarreko Mercedes 1722 Ak kamioia erosi berria zen eta ezin daiteke esan estreinu zoriontsua izan duenik... Atzo goizean kamioia bertatik ateratzeko lanak hastekoak ziren.



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

■ **Bi bergarar Brusselan**

Aurreko asteartean **Eusko Ordezkaritza** inauguratu zen Brusselan, Belgika, eta inaugurazio ekitaldian bi bergararrek hartu zuten parte, **Maria Jesus Ugalde** abeslariak eta **Edu Murua** dantzariak hain zuzen ere. Edu Muruak aureskua dantzatu zuen **Jose Antonio Ardanza** lehendakariaren aurrean Eusko Ordezkaritzan bertan eta jarraian kontzertu bat izan zen *Palais des Beaux Arts* delakoan. Edu Muruak berriz dantzatu zuen eta jarraian musika emanaldia izan zen. Lehenbizi Maria Jesus Ugaldek Euskadiko ereserkia interpretatu zuen beste bi sopranoekin batera eta Ertzaintzako musikarien laguntzaz. Ondoren, Ugaldek **Capilla Peñaflorida**arekin abestu zuen, hainbat euskal musikagile zaharren piezak eskeiniz. Brusselan euskal kultural eta politikako pertsonaia ugari bildu ziren, tartean Jose Antonio Ardanza lehendakaria eta



Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua.

Zertan dihardute ba?



Jon Lazkano 26 urteko mendizale bergararra Pakistanera abiatuko da datorren ostegunean, hilak 22. Bederatzi egunez hainbat tramite egin beharko ditu maiatzetik aurrera telebistarako irudiak Pakistanen grabatu ahal izateko. esan bezala, maiatzean TVEko *Al filo de lo imposible* saiorako Amin Brakk mendiko paretara batean izango da Lazkano. Ondoren TVEk etnien inguruan egingo dituen beste programa baterako gidari lanak beteko ditu. Datorren astean bertara joango da hainbat permiso lortu eta beste jectio batzuk egiteko.

■ **Urrezko eztaiak**

Luis Alberdi eta **Euxebi Muruamendiaraz** bergararrek ezkondu zireneko urrezko eztaiak ospatu zituzten pasa den urtarrilaren 30ean. Hori ospatzeko, meza izan zuten Arantzazun eta jarraian Soraluze jatetxean bazkaria egin zuten familiartekoeekin batera. Luis eta Euxebi Elosun ezkondu ziren. Zorionak biei, eutsi osasunari eta elkarrekin beste 50 urte betetzen dituzuenen, berriz ere Berrigarar!!



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

AZPEITXI

Aranerreaka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

Elena Reifs

Elena Reifs 24 urteko bergararrak irabazi du aurtengo Karnabaletako kartel lehiaketa. Iaz ere, Karnabal eta Pazkuetako lehiaketetan nagusitu zen. Arte Ederretan lizentziatua, gaur egun Donostiako ikastetxe batean marrazketa klaseak ematen ditu.

- Zer adierazi nahi izan duzu kartel irabazlearekin?
- Jaiaren izpiritua eta dibertsioa.
- Zertaz mozorrotuko zara aurten?
- Oraindik ez dakit... Etxean topatzen dudana jantziko dut, ez dut batere planifikatzen.
- Sekula jantziko ez zenukeen disfraz bat.
- Power Rangerrena.
- Eta zein da zure ustez aurten gehien ikusiko dena?
- Drag Queen-ena, beharbada.
- Karnabalak Bergaran ala kanpoan?
- Bergaran.
- Karnabal larunbata ala asteartea?
- Larunbata.
- Zergatik ikasi zenuen Arte Ederrak?
- Txikitatik gustatu izan zait



“Jaien izpiritua eta dibertsioa adierazi nahi izan dut Karnabaletako kartelean. Ez dakit zertaz mozorrotuko naizen. Eduardo Naranjo pintorea gustatzen zait. Ez naiz superstiziosoa. Martitzena eta 13ri beldurrik ez diot”

marrastu eta margotzea.

- Margotzea noiz gustatzen zaizu?
- Denbora daukadanean.
- Paisaiak ala erretratoak?
- Erretratoak nahiago.
- Eta nor erretratatu zenuke?
- Nere anaia.
- Kolore bat?
- Urdina.
- ARCO feriara joan al zara Madrilera?
- Aurten ez, baina azken hiru urtetan izan naiz.
- Gustoko pintore bat?
- Eduardo Naranjo.
- Eta koadro bat aukeratzekotan?
- "Guernica", Picassorena.
- Museo bat?
- Madrilgo Reina Sofía.
- Hobby bat?
- Kirola ez behintzat. Zinea asko gustatzen zait.
- Zein pelikulari emango zenioke aurtengo oskarra?
- "El día de la bestia" edo "La flor de mi secreto"ri.
- Zodiako zein zeinutakoa zara?
- Virgoa naiz.
- Eta nolakoak zarete Virgoak?
- Estremoak garela diote. Edo oso ordenatuak edo batere ordenatuak ez. Ni behintzat ordenatua naiz.
- Gaur, martitzena eta 13, zerbaiten beldurrik badaukazu?
- Ez, ez naiz batere superstiziosoa. Gainera dena ondo joan zait gaur.



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxa: 76 41 54
 ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
 Larunbatetan: 9.00-13.00

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
 Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXE BIZITZA

Pisua salgai Mugertza ka-lean. ☎ 76 13 62.

Pisua alokatuko genuke Bergaran. ☎ 76 25 31 (Alex) edo 76 13 64 (Aitor).

Lokala alokatzen da Bidekurutzetan. ☎ 76 36 99.

Pisua salgai Barrenkalen. Berriztuta. ☎ 78 70 30.

Etxe berria Masterrekan salgai. ☎ 76 49 87.

Pisua salgai Burdiñaten. 70 m2. ☎ 76 38 06.

Pisua alokatzen da Bidekurutzetan. ☎ 76 36 99.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 44 25.

Lokala alokairuan Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

Garajea (bi plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Pisua salgai K.Eleizalden 85 m2. ☎ 76 31 57 (gauzez).

Pisu bat alokatzen da Antzuolan. ☎ 76 21 06.

Garajea salgai Kruz Galastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea salgai Bolun (2 plaza). ☎ 76 54 11.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 76 00 39/ 79 27 68.

DENETARIK

Txakurrarendako kase-ta txikia salgai. ☎ 76 09 12.

Poltsikoko **Casio telebis-ta** salgai. ☎ 76 56 13.

Urrezko pultsera bat galdu nuen Gabonetan San Pedro inguruan. ☎ 78 03 48.

Hi-Fi kate txiki bateko bi bafle salgai. ☎ 76 52 31.

Suzuki GSx 600F motorra salgai. ☎ 76 20 26 (gauzez).

486 Compaq ordenadorea salgai. 200.000 peze-ta. ☎ 76 00 91 (Javier)

GAC Kanowey **motor** bat saltzen dut. 49,9 cc. Ego-era onean eta prezio inter-resgarria. ☎ 78 70 98.

Renault 4 F6 kotxea sal-gai. ☎ 76 22 11.

Bigarren eskuko **karabina** erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

Bi txakurkuma oparitzen dira. ☎ 76 26 82 (gauzez).

Musika bateria salgai. la berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

Bizikletan aritzeko rodilloa erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

Josteko makina salgai. Egoera eta prezio onean. ☎ 76 48 47 (Loli).

Estilo errustikoko **logela** salgai. ☎ 76 52 31.

"Imar" karro-denda salgai. ☎ 76 58 62 (gauzez).

Opel Corsa (SS-U) kotxea salgai. ☎ 76 46 54.

Comodore ordenagai-lua salgai. 50.000 pezeta. ☎ 76 56 13 (Iker).

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Matematika eta zientzie-tako klaseak. ☎ 76 03 72.

Ordenadorez lanak pasa-tzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

Matematika klaseak. ☎ 76 06 50.

Etxeko lanak egingo ni-tuzke. ☎ 76 52 89.

Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Ingeles Filologia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 46 14 (Pili).

Aleman diplomatuak ar-ratsaldez klase partiku-larrak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

Matematika (Enpresari-tza maila) klaseak hartuko genituzke. ☎ 76 26 82.

Gutxitu psikikoak, hau-rrak edo zaharrak zaintzen ditut. ☎ 76 48 65 (Paki).

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ZABALETA

ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...



"Etorkizunera begira zuribeltza gehiago lantzea gustatuko litzaidake, asko interesatzen zait"

"Pol-Poleko erakusketan teknika ezberdinez landutako 30 argazki erakusten ditut"

BENITO CANTERO, ARGAZKILARIA

"Argazkilaritza pertsona bezala aberasteko modu bat da"

Benito Cantero (34 urte) 16 urterekin hasi zen argazkigintzan. Orduan hainbat lehiaketatan saritua izan da eta horrez gain hainbat aldizkarirekin (Berrigara tartean) kolaboratu du. Orain bere erakusketan Pol-Polen ikus daiteke otsailaren 25era arte, 9etatik 9etara.


- Zelan sortu da erakusketak hain egiteko aukera?

- Azken 2 urtetan Azkoitia erakutsi ditut argazkiak eta beti geratu izan naiz Bergaran erakusteko gogoz. Pol-Pol Argazki Taldean 10 urte daramatzadenez, aitzakia hori izan da.

- Nolako argazkiak dira? Zein teknika erabiltzen duzu?

- 30 argazki dira guztira, zuri-beltzean eta koloretan ateratakoak. Teknika ezberdinak landu ditut: sepiara birajeak, izpi-gorriko pelikula, jarraipen tonoko pelikularekin egindako manipulazioak... Eta gaiak, gehien interesatzen zaizkidanak nagusiki: kirolak eta paisaiak.

- Zure kasuan mendira eta argazkilaritza



16 urterekin hasi zen argazkilaritzan Benito Cantero.

oso lotuta doaz...

- Hasieran mendira kamararekin joaten nintzen eta orain, berriz, kamararekin mendira. Orain berdin, zait gailurrera heltzea, nahiago dut paisaia eta kamararekin zerbait asmatzea. Hala ere, edozein lekutan ateratzen ditut argazkiak, baita Martokuako lorategian ere. Baina, bai, mendian gehiago ibiltzen naiz. Irteera kolektiborik ez egin arren, Agustin Gurrutxaga eta biok asko ibiltzen gara.

"Hasieran mendira kamararekin joaten nintzen eta orain, berriz, kamararekin mendira. Paisaia eta kamararekin zerbait asmatzea bilatzen dut"

- Etorkizunerako asmorik?

- Zuri-beltza gehiago lantzea gustatuko litzaidake, asko interesatzen zait. Neretako argazkilaritza pertsona bezala aberasteko modu bat da eta ikastea den guztia ondo datorkit. Udan ere Taronan *Lenguaje del desnudo* izeneko ikastaroan egon nintzen eta asko ikasi nuen.

- Zer aztertu zenuen?

- Ez du zerikusirik argazki erotikoei. Bakoitzak bere modura interpretatzen zuen. Nik, esate baterako, pertsona paisaian integratzea bilatzen nuen. Dena den, ikastaroko lanak azaroan erakutsiko ditugu Bergaran. Ikusita hobeto ulertuko duzue.

- Bukatzeko, zeintzuk dira zure gustoko argazkilariak?

- Asko daude. Jose Ortiz Etxague (1930ko hamarkadako), Rafael Navarro (Taronako irakaslea), Juanxto Rodríguez, Kote Cabezudo eta Mamen Mari donostiarra, Ernst Haas (argazki mugituak egiten hasi zena) eta niretako onena den Sebastiao Salgado.



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. BAR CANALEJAS	25	11	34	10
2. ERROTAGAIN	25	11	39	20
3. OGIZUN	23	11	43	30
4. MONGATXURRA	19	11	42	20
5. MADURA INDUSTRIAS GOL	19	11	35	20
6. KABIA	17	11	29	32
7. ORTZI	13	11	21	31
8. BILDURABEK OPEL/LAM	11	11	22	29
9. ARLOTEAK	9	11	24	31
10. OZAETA	4	11	26	41
11. UFALA	3	11	22	43
12. BERGATRANS	0	0	0	0

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	37	13	95	30
2. A ZE FLAXA	29	13	43	31
3. PAGOMENDI	26	13	60	39
4. ARTU SAMAK	26	13	53	33
5. ETXAGI	16	13	60	54
6. NAIKARI HOOLIGANS	16	13	49	39
7. UVE BIKOITZA	16	13	38	53
8. KAYAK OS JARDINEIROS	15	13	60	43
9. AUTOBEREZI	12	13	42	51
10. HALTZARI	12	13	32	52
11. ERI	10	13	36	51
12. INDARGORRI	9	13	20	30

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SOROPOTROAK	33	13	77	35
2. KIROLZALEAK	31	13	73	37
3. LA JUVE	25	13	49	42
4. NEKROFILIKOS	24	13	56	37
5. EZINLEIKE	21	13	62	38
6. AMOZKIBAR	20	12	29	20
7. MOSKIS	17	13	32	54
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	16	13	42	44
9. EH BITERRAK	14	12	24	41
10. ARI ARI	9	13	32	63
11. SHAKTALE	8	13	25	48
12. IGANDEKOAK	4	13	31	50

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	31	12	65	24
2. GUADALEST	26	12	62	20
3. PJS	22	11	52	20
4. TXIPIRON	22	12	44	28
5. PATXARAN TEAM	20	12	39	29
6. OSINTXU	20	12	51	29
7. PATA NEGRA	16	12	52	63
8. MATXAKATEGI	11	12	49	58
9. ALDOKA MALDOKA	10	12	38	38
10. LABEGARAIETA	9	12	26	57
11. XURRUPAK	0	12	19	71

TALDEAK



FAC taldea Aitor Usaola, Ion Arrieta, Asier Sebal, Iker Beitia, Aitor Ortiz de Urbina, Asier Lamikiz, Zigor Urrutia, Xabier Arregi, Gurutz Beitia eta Xabier Lazkanok osatzen dute. Lehen urtea dute txapelketan eta emaitzei begiraturaz erraz hartu diote martxa txapelketari 4. mailako lehenengo postuan baitaude. Izena taldeko ehizazale batek jarri dio, FACek "Frente anticuervos" esan nahi baitu. Taldea koadrilako lagunek atera dute eta txapelketa ondo dagoela esan digute, bai antolakuntzaren eta baita arbitroen aldetik ere. Halere, partidua asko goizez jartzen dizkietela diote...

PARTIDUAK

LARUNBATEAN KANPOAN

- 12.00:** Ozaeta-Kabia • Eri
13.00: Eri-Naikari Hooligans • Ozaeta

IGANDEAN BARRUAN

- 09.00:** Txipiron-Pata Negra • PJS
10.00: Labegaraieta-PJS • Txipiron
11.00: Kirolzaleak-EH Biterrak • Labegaraieta
12.00: Ari Ari-Igandekoak • EH Biterrak
13.00: Amozkibar-La Juve • Igandekoak
16.00: Nekrofilikos-C. Bergara • Moskis
17.00: Moskis-Shaktale • Nekrofilikos
18.00: Soropotroak-Ezinleike • Shaktale
19.00: Patxaran T.-Matxakategi • Soropotroak
20.00: Xurruapak-FAC • Matxakategi

IGANDEAN KANPOAN

- 10.00:** Jauja OH Zerezos-Kayak OJ • Uve B.
11.00: Indargorri-Uve Bikoitza • Jauja OH Z.
12.00: Artu Samak-A Ze Flaxa • Indargorri
13.00: Etxagi-Haltzari • Artu Samak
16.00: Ortzi-Bildurbarek • Mongatxurra
17.00: Mongatxurra-Ufala • Bildurbarek

BERGATRANS KANPORATUA

Lehen mailako Bergatrans taldea kanporatua izan zen orain dela aste batzuk, bi partidutara ez aurkezteagatik. Antolaketa Batzordeak, Bergatransen jokatuak zituen partidua kontutan ez hartzea erabaki du. Bere kontrako partidua irabazi zuten taldeek hiru puntu gutxiago dute.

EMAITZAK

1. MAILA

- OGIZUN-OZAETA 8 - 4
 BILDURABEK OPEL/LAM-MONGATXURRA 2 - 2
 ARLOTEAK-KABIA 4 - 1
 ANGIOZAR-BAR CANALEJAS 0 - 6
 MADURA INDUSTRIAS GOL-ERROTAGAIN 0 - 3

2. MAILA

- INDARGORRI-AUTOBEREZI 2 - 0
 HALTZARI-PAGOMENDI 2 - 4
 JAUJA OH ZEREZOS-ETXAGI 10 - 3
 NAIKARI HOOLIGANS-KAYAK OS JARDINEIROS 3 - 5
 A ZE FLAXA-UVE BIKOITZA 2 - 2
 ARTU SAMAK-ERI 8 - 2

3. MAILA

- IGANDEKOAK-NEKROFILIKOS 3 - 8
 ARI ARI-SHAKTALE 1 - 0
 KIROLZALEAK-AMOZKIBAR 2 - 5
 LA JUVE-MOSKIS 6 - 1
 EZINLEIKE-CONSTRUCCIONES BERGARA 6 - 2
 SOROPOTROAK-EH BITERRAK 6 - 3

4. MAILA

- XURRUPAK-OSINTXU 2 - 4
 MATXAKATEGI-PATA NEGRA 5 - 7
 FAC-PATXARAN TEAM 5 - 0
 TXIPIRON-LABEGARAIETA 4 - 6
 GUADALEST-ALDOKA MALDOKA 3 - 1

TALDEAK



Artu Samak taldea Unai Colinas, Mikel Leturia, Jon Ander Garitano, Josu Iñarra, Kepa Irizar, Aitor Ilardüia, Igor Unamuno, Eugenio Beldarrain, Jakue Mendizabal eta Xabier Garitanok osatzen dute. Dagoeneko 4 urte daramatzate elkarrekin jokatzen eta taldekide guztiak koadrila berekoak dira. Aurten emaitza onak lortzen ari dira eta horrela jarraitzen badute lehen mailara igotzeko aukera izango dute. Izenari dagokionez, erotiko samarrak direla esan behar, bestela irakur ezazue Artu Samak atzetik aurrera...

Axen Garitanok 18. postuan amaitu du Pirena 96 lasterketa

Axen Garitanok joan zen ostiralean amaitutako Pirena 96an 18. postuan sailkatu zen eta berak adierazi digunez aurten go Pirena oso gogorra izan da. "Aurten elur asko egin du eta haizeak ere gogor jotzen zuen eta ezin hotzarekin. Egunean zehar zero gradu edo zero azpitik 2 gradu inguru egiten zuen egunero eta gauetz 15 gradu zero azpitik ere egin izan du" adierazi digu Garitanok.

Pirena 96a Iratitik La Molinaraino (Lleida) bitartean egin behar izan dute txakurrek tiratutako leretan. "11 txakur eramant ditut eta oso ondo portatu dira. Halere, lehenengo etapetan leraren soka soltatu egin zitzaidan eta horrek atzeratu ninduen. Iaz 16. egin nuen, baina aurten maila hobea zegoen eta pozik nago egindakoarekin" dio Garitanok.



Pirinioak aldenik alde zeharkatu ditu Axen Garitanok Pirena 96 txakur leren lasterketan. Sekulako hotzak pasa omen ditu.

Horrelako proba batean abentura bizitzeko aukera ere izaten da eta etapa batean 3 orduz galduta ibili zen Gaittaokoa. "3 orduz ibili ginen galduta 1.700 metro inguruko altueran eta beste bi lagunekin batera hotzik ez pasatzeko kanpin denda jarri behar izan genuen eta bertan itxoin, norbait

etorri arte. Han zegoen elurra eta haizearekin ez zen batere ikusten. Azkenean, motorren zarata entzun genuen eta eurei jarraituz beldu ginen metara".

Datorren urtean errepikatzeko asmoz etorri da Garitano eta orain martxoan zehar Gorlan antolatzen duten txakur leren

lasterketa prestatzen hasiko da. "Bilera bat egingo dugu Udalarekin gure asmoa lasterketa egitea baita. Jendea, kataluniarak eta madrildarrak, desiatzen daude etortzeko, hemen ondo pasatzen baitute, baina antolakuntzan gauzak hobetu behar dira eta horretan lan egin behar".



Realaren atzetik sailkatuta daude BKEko kadete mailako mutilak.

Futboleko kadeteak bigarren

BKEko lehen mailako kadete taldea denboraldi bikaina egiten ari da eta bere taldean Realaren atzetik 2. postuan dago. Joan zen asteburuan Almenen aurka jokaturako partiduan bergarrek erraz irabazi zuten 4 eta 1eko emaitzaz, hain zuzen ere. Lehen fasea amaitzeko 3 partidu falta zaizkie eta horrela jarraitzen badute Euskadiko Ohorezko Kadete ligara igotzeko ligaxkara sartzeko aukera asko dute. Bertan, Gipuzkoa mailako talderik onenak izango dira taldeko entrenatzailea den Fernando Oregik esan digunez: "Ligaxka horretan 6 ekipotako bi talde izango dira, eta multzo bakoitzeko 3 onenak igotzen dira eta bi 4. enek elkarren aurka jokatu dute, igokoduen beste taldea zebazteko".

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Alde Zaharra**

Lehen erregionala.
Larunbata, 15.45. Agorrosin.

◆ **Bergara-Gazteak**

2. mailako kadeteak.
Larunbata, 17.15. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA

◆ **Push Team-Blue Star**

Larunbata, 16.00.
Migel Altuna Institutua.
Kantxa nagusia.

◆ **Guk-Berdin Du**

Larunbata, 17.00.
Migel Altuna Institutua.
Kantxa nagusia.

ESKUBALOIA

◆ **Bergara-San Adrian**

Kadete neskek.
Larunbata, 9.45.
Labegarieta kiroldegia.

◆ **Bergara-San Adrian**

Jubenil neskek.
Larunbata, 11.00.
Labegarieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Arrate**

Kadete mutilak.
Larunbata, 16.00.
Labegarieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Tiñelu**

Senior mutilak (2. Territoriala).
Larunbata, 17.15.
Labegarieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Usurbil**

Senior mutilak (2. Nazionala).
Larunbata, 18.30.
Labegarieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ **Bergara-Larramendi**

Senior mutilak.
Larunbata, 18.00.
Labegarieta kiroldegia.

Andres Cachafeiro

Badmintona du gustoko kirola

Andres Cachafeirok 23 urte ditu eta duela 8 urte badmintonean jokatzen hasi zen. Ez da kirol ezaguna bergararren artean eta badmintona pixka bat gehiago ezagutzeko Cachafeiroren gana jo dugu, bera aukeratu baitute elkarte-ko kirolaririk onena, bere kideek egindako bozketaren ondoren.

- Zela hasi zinen badmintonean jokatzen?

- Bergaran badminton ikastaro bat antolatu zuten duela 8 bat urte eta bertan aritu ginen, batzuk oinarrizko gauzak ikasteko eta beste batzuk monitore titulua atera genuen. Nahikoa jende apuntatu ginen. Orduan Ipintza institutoan nenbilen ikasten, eta bertan gimnasia irakaslea zen Josean Iñarrak elkarte sortzeko idea luzatu zuen eta horrela sortu genuen kluba. Hasieran jende asko apuntatu zen, baina gaur egun gutxiago gabil-tza.

- Zer behar da badmintonean jokatzeko?

- Raketa bat eta gogo haundia. Kirol moduan ez da oso zaila, teknika aldetik badira gauza batzuk zailak ikasteko, baina 2 edo 3 astetan menperatzen da. Zailena re-besa da, baina bestela beti berdina da: kolpe bat gora eta beste bat behera.

- Material aldetik garestia al da?

- Raketek 3.000 pzta-tik 10.000 pzta. ingurura

balio dute. Bolanteak (pelota antzerakoak) erraz apurtzen dira; hain ere, guk plastikozko bolanteak erabiltzen ditugu zailago apurtzen direlako, baina txapelketetan lumazkoak erabiltzen dira, errazago erabiltzen direlako.

- Ba al du zerikusirik tenisarekin?

- Ez asko, boleibolarekin zerikusi gehiago duela uste dut.


- Orain kluba indartzeko kanpaina hasi berri duzue, ez?

- Bai, herrian zehar kartelak jarri ditugu eta Mariaren Lagundiko gim-

nasioan izaten gara aste-lehen eta asteazkenetan arratsaldeko 7etatik aurrera eta larunbatetan eguerdiko 12etatik aurrera. Hasieran raketa erabiltzen erakusten dugu eta ondoren, jokoaren arauak irakasten saiatzen gara.

- Ze arau ditu badmintonak?

- Partiduak 15 tantotako 3 setetara izaten dira eta tantoa egiteko saka izan behar duzu. Tanto bikoitia denean eskumako aldetik atera behar duzu eta bakoitia denean ezkerretik. Pelotak ezin dezake lurra ikutu.



Badmintonean aritzeko raketak 3.000-10.000 pzta. kosta daiteke.

"Badmintona ez da oso zaila 2 edo 3 astetan menperatzen da"



Astebeterako Urbiara

Ortiz De Zarate senitartekoak udero Urbiara joaten ziren astebete pasatzera. Familia-koetz gain, lagunak ere joaten ziren bisitara eta denek elkarrekin egunpasa ahaztezinak egiten zituzten.

1.951ko argazki honetan senitartekoak eta lagunak ikus ditzakegu Peru Saroi aurrean.

Goian: Angel Gómez, Arantxa Ortiz De Zárate, Pedro José Zabala, Adona Gallastegi, Luis Mari Lizarralde, Begoña Gómez, Itziar Ortiz De Zarate, Lide Ortiz De Zarate eta Manolo Lijó.


Behean: Luis Bikuña, Juan Luis Bikuña, Angel Ortiz De Zárate eta Santos Galparsoro.

Argazkia: Manolo Lijó



Mari Carmen Nin

(Ikaslea)



*Udal Euskaltegiko
langile eta ikasleok
gogoan zaitugu*

Bergara, 1996ko, otsailak 16



Eskertza

Mari Carmen Ninen
famiartekoek
eskerrak eman nahi
dizkiete herritar guztiei
adierazitako
elkartasunagatik.

Bergara, 1996, otsailak 16

10
POLIZA

Trébol
POLIZA

10s
POLIZA

Lider
POLIZA

7
POLIZA

Básica
POLIZA

Todo Riesgo
POLIZA

Todo Riesgo 900
POLIZA

GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK

MAPFRE
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA
 ☎ 76 28 79 / 76 18 80

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguruak aurkituko duzu beti. Hala seguru izan zaitezten. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

UGARTE

AROSZTEGIA

San Juan auzoa (Barruti) Telefonoa eta Faxa: 76 54 91

*Leiho termoakustikoak
Horma armairuak
Ateak
Altzariak*

JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun
DENDA ESPEZIALIZATUA.

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.